


Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %10,4 igo zen 2004ko laugarren hiruhilekoan

Urteko hazkunde metatua %7,5ekoa izan zen

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2004ko laugarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan %10,4 hazi zen, termino nominaletan, Euskal AEko eraikuntzako jardueran, 2003ko hiruhileko beraren aldean. 2004 guztirako hazkunde-tasa metatuak %7,5eko hazkundera lortu zuen, aurreko urtearen aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2004ko laugarren hiruhilekoan %3,7 hazi zen eraikuntzako jardueran, 2004ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. 2004ko hirugarren hiruhilekoan, hiruhileko arteko tasak %4,8ko hazkundera lortu zuen, aurreko hiruhilekoaren aldean.

**Euskal AEko Eraikuntzaren Kointura Indizearen
urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua**



Iturria: Eustat

Eraikuntza-sektorearen bilakaera positiboa, 2004ko azken hiruhilekoan, gehiago oinarritu zen *eraikinak* azpisektorean, *obra zibila* azpisektorean baino. Izan ere, lehenak %13,3ko igoera izan zuen; bigarrenak, berriz, %4,1ekoa, lan-egutegiaren eraginak zuzendu ostean.

2004ko balantzean metatutako aldakuntza ere handiagoa izan zen *eraikuntzan*, *obra zibilean* baino, biak positiboak izan ziren arren. Zehazki, *eraikuntza* %9,0 hazi zen 2004an, eta *obra zibila* %4,4.

2004ko laugarren hiruhilekoan, eraikuntzaren sektoreko enplegua %1,1 gehitu zen, datu gordinetan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. 2004an %1,6ko hazkunde metatua lortu zen, aurreko urtearen aldean.

Taula: 2004ko 4. hiruhilekoa. Euskal AEko Eraikuntzaren Koiuntura Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Concepto	Corregido		Desestacionalizado	
	4ºtr04 / 4ºtr03	At/At-1 (1)	4ºtr04 / 3ºtr04	3ºtr04 / 2ºtr04
Indice de producción	10,4	7,5	3,7	4,8
Edificación	13,3	9,0	4,1	4,0
Obra Civil	4,1	4,4	2,9	6,4
Indices de personal ocupado	-	-	-0,1	0,6

(1) t urteko urtarritik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat

Oharra: Eurostatek "Methodology of Short-term Business Statistics. Interpretation and Guideliness. 2002 edition" agirian egindako gomendioen arabera, Eustatek bere azterketetan egutegi-eraginak zuzendutako serieak erabiliko ditu urte arteko hazkunde-tasetarako (t/t-4) eta metatuetarako (At/At-1) eta serie desestacionalizatuak hiruhileko arteko tasetarako (t/t-4). Datu gordinak ere erabiltzaileen eskueran izango dira Eustaten web orrian eta datu-bankuan.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Perez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp